

BALEIKE



ARAN SANTAMARIA

**ARTEAREN
ALDE
JOSTARIA**



ENDAÑETAK
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

TiEN21



Galdona

Denda:

Mendaro marinela, 1

943-14 33 46

Biltegia:

Jose Mari Korta industrigunea

Pab. A6.1, 2-5 mod.

943-86 11 17



Industriarako nahiz **etxerako era guztietako material, tresna, pieza, eta osagarriak**



BALEIKE 306

2020-OTSAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 4 | Hitz tantak Onintza Lete Arrieta
<i>Eva Franco</i> | 31 | Osasuna Rosa Azkue
<i>Bihotz gutxiegitasuna (I)</i> |
| 6 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
Aprea
<i>Sagardoaren jaiotza</i> | 33 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Ez behartu haur bat nahi ez duena
jatera</i> |
| 8 | Hainbat aburu Izar Azkue eta
Haritz Egiguren
<i>Bidea gara, bidean gaude</i> | 34 | Zientzia eta ingurumena
Markel Peñalba
<i>Etorkizuneko energia I: Trantsizio
energetiko globala</i> |
| 9 | Errematea Jose Castillo
<i>SOStalaritzaz</i> | 38 | Orduan bai Imanol Azkue Ibarbia
<i>Txahal baten ibilerak</i> |
| 10 | Elkarrizketa Amaia Urbieta Arruti
<i>Aran Santamaria: Egitea gustatzen
zait, esplikatzea baino gehiago</i> | 42 | Agenda |
| 15 | Erreportajea Juan Luis Romatet
<i>Turismoa izurritearen garaian</i> | 44 | Literatura Antton Peñalba
<i>Nola utzi genien hau egiten?</i> |
| 22 | Erretratua Dorleta Agiriano Lai
<i>Nieves eta Jose Chorro, frutariak</i> | 45 | Nire txanda Xabier Aizpurua
<i>Epikuroren baratzea eta postuare
berdea</i> |
| 26 | Bazkidetza | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Leihoak</i> |
| 28 | Plazan bazan | | |

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta

Imanol Azkue Ibarbia
Amaia Urbieta Arruti
Dorleta Agiriano Lai
Argazkilaria
Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Ane Azkue

Hizkuntza arduraduna

Imanol Azkue Ibarbia
Publizitate arduraduna
Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus
**Administrazio
arduraduna**
Uxua Ostolaza

administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



Eva Franco

TESTUA: ONINTZA LETE ARRIETA

ARGAZKIA: EVA FRANCO

Ez da erraza Eva Franco Goikoetxea (Zumaia, 1971) argazkilaria bizi bi esalditan laburbiltzea. Ingalaterrari zor dizkio ofizioa eta afizioa, eta buruan egiten dituen istorio surrealista direla argazkietan islatzen dituenak **Gogoan duzu noiz hartu zenuen aurreneko aldiz argazki kamera bat eskuetan?**

Ingalaterratik bueltan izango zen, 1993an. Hemen egin nuen denboraldi bat oinarrizko ikasketak edukitzeko, gero hara itzuli nintzen arte hezkuntza ikasteko, argazkilaritzako espezializazioarekin.

Borborka egongo zen garai hartan ere Londresko arte mundua...

Bost urte egin nituen, eta zoragarria izan zen; eromena zen hura, han zeudelako diseinu grafikokoak, bideogintzakoak... Aurrena Londresen egon nintzen, gero Ingalaterra ezagutzera atera nintzen hiririk, eta berriz han nengoela, zerbait egin nahi nuen, lanerako bizitza osoa neukalako gero ere. Egigurrenek egiten zuen lana asko gustatzen zitzaidan, eta horregatik hasi nintzen argazkiarekin

Begiratu eta harro sentiarazten zaituen argazki edo lanik baduzu?

Ez. Datorrena da onena.

Beti kamera bera behar izaten duzu argazkiak egiteko, ala berdin dizu tresnak?

Teknikoki ez zait interesatzen argazkia. Gaur egun, gainera, sakelako batekin lor ditzakezu nahi dituzun megak. Ni analogikotik nator, eta adibidez, gustatzen zait kamerak pisua edukitzea, eskuetan sentitzea, ez plastiko zati bat. Hasselblad bat daukat; zaharra da eta ez ditu mega asko, baina eskuetan ondo sentitzen naiz horrek, agujetak edukitzen ditut hurrengo egunean.

Ramon Serras sariketan hirugarren saria eskuratu duzu.

Bai, ni neure proiektuekin ibiltzen naiz, inoiz ez naiz joaten argazki bat ateratzera: nire argazkiak beti daude pentsatuta, planifikatuta, muntatuta...

Lan asko dute aurretik. Gustatzen zait ideia bat sumatzea buruan eta hortik hastea tiratzen. Sentimenduak, ideiak... adierazteko modu bat da niretzat argazkia; batzuetan baita gauza batzuk erreibindikatzeko modua ere. Orain, konfinamenduarekin, denbora eduki dut egindako lanak begiratzeko, eta Zarautzen erretratuen sariketa zegoela ikusi nuenean, aurkeztera animatu nintzen.

Erretratua da zure lanean funtsezko estiloa, gainera.

Hori da gehien gustatzen zaidana, eta erretratuarekin batera, moda. Ez gaur egungoa, baizik moda munduan sortzen diren piezak. Horiek toki eta garai batzuetara eramaten zaituzte; mentalki, inspiratu egiten zaituzte istorioa kontatzeko. Eta erretratuen lehiaketa ikusi nuenean Zarautzen, aurkeztu egin nintzen. Hirugarren postua lortu nuen, eta horrek aukera eman zidan Argizaiolara aurkezteko; argazkiak aukeratzeko ari naiz orain. Azpimarratu nahi dut Frida alaba agertzen dela saritutako argazki horretan; 12 urte ditu, eta sekulako pazientzia dauka nirekin. Nire argazkietan emakumeak dira protagonista nagusiak, eta ez da erraza izaten modeloak aurkitzea, are gehiago pandemia garai hauetan. Gainera, konfiantza ere eduki behar dute zuegan, helburua ez delako beraiek guapa agertzea, istorioa kontatzea baizik.

Istorio asko dituzu kontatzeko, ala badaukazu obsesioen bat?

Ez, istorio mordoak ditut kontatzeko, oso desberdinak: ipuinak, esaera zaharrak, Oteizaren Pietatea... gauza askok inspiratzen naute.

Emozio fuertea eragin dizun azken argazkia?

Azkena ikusi dudana erakusketa Eugenio Recuencoren 365 izan da, Madrilen; ez nuen galdu nahi. Niretzat ikaragarritzko maisua da, eta erakusketa hori izan zen oda bat nik argazkia ikusteko dudana moduari. Gabonetan, berriz, Tim Walkerren liburuak oparitu zizkidaten, eta horiei bueltaka eta bueltaka nabil orain. Dena den, ideiak batez ere pinturatik eta artearen mundutik hartzen ditut, ez hainbeste argazkietatik. ■■■



Sagardoaren jaiotza

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Sagarra jo ondorengo lehenengo muztioa dastatzen dabil Gartziategiko Ander. Sagarraren zukua muztio edo zizarra izenez ere ezagutzen da, irakin eta botilaratu ostean Euskal Sagardoa izango dena. ■■■

Kamera: Nikon D750

Objektiboa: Sigma 50 mm f1.4 ART

Foku distantzia: 50 mm

Diafragma: f2

Obturazio abiadura: 1/100 seg.

ISO: 2000

Instagram: @arnaitzrubiofoto





Bidea gara, bidean gaude

Beste urte batez, abendua iristearekin batera, preso eta iheslarien dinamikak aurrera ateratzeko elkartu ginen, oraindik ere, ehunka preso eta iheslari politiko beraien etxeetatik urrun eta giltzapean daudelako.

Aurtengo egoera berezi honetara egokitzeko, urteroko egitarauari aldaketa batzuk egin behar izan genizkion, baina, hala ere, herriak erantzun du. Esaterako, 240 herri eta milaka pertsona elkartu ginen urtarrilaren 9an preso, iheslari eta berauen senideei elkartasuna adierazteko.

Zumaian, abenduaren 31ko manifestazio jendetsuaz gain, argazki ederra atera genuen urtarrilaren 9an, Itzurunen. Egun horri begira eta kontuan hartuta aurten Bilbora joan ezinik geratuko ginela,

ekimenean 250 pertsona inguru elkartzea jarri genuen helburu. Gure aurreikuspen denak hautsi eta 300 pertsona inguru elkartu ginen aldarri berberekin:

- Euskal presoan Euskal Herriratzea, urruntze politika amaitzeko.
- Euskal preso guztiei gradu progresioa ahalbidetzea.
- Larriki gaixo diren presoak etxera ekartzea.
- Adinez nagusiak diren presoan etxeratzea.

SENIDE GUZTIEN ARTEAN URTERO 11.750 BIDAIA EGITEN DITUZTE GUTXI GORABEHERA

- Motxiladun haurrek gurasoekin bizitzeko duten eskubidea errespetatzea.
- Kontuan hartzea Frantzian betetako zigor urteak Espainian ezarritako zigorrean.

35 urte baino gehiago igaro dira dispertsio eta salbuespen egoera aplikatzen hasi zirenetik, baina badira argi izpi txiki batzuk tunel ilun honetan, tantaz tanta presoak gerturatzen eta kalera irteten ari direlako; hala ere, bidea luzea da oraindik: 18 dira Euskal Herriko espetxeetan eta beste 7 etxean preso daudenak. Gaineratzeko 192 presoak Espainiako eta Frantziako espetxeetan daude oraindik. Ia herenak etxetik 600 eta 1.100 kilometrora daude, eta bostetik bat 400 eta 600 kilometro artean.

HAUXE BAI JENEROA!



Horren ondorioz, senide guztien artean urtero 11.750 bidaia egiten dituzte gutxi gorabehera, 40 minutuko edo hilean behin familiako aurrez aurreko zein ordu eta erdiko bisita intimo bat izateko. Horrek guztiak 1.482.195 -ko kostua dakar. Eta ezin aipatu gabe utzi dispersioa hasi zenetik 16 hildako izan direla gaur arte.

Arazoa egun batetik bestera ez delako konpontzen, milaka mobilizazio eta ekimen ezberdin jartzen dira martxan, hala nola: azken ostiraletako kontzentra eta manifak, Hatortxu Rock jaialdia, presoan aldeko zozketak, Deposito Bete Elkartasun, Motxiladun Umeak, Gazteok Zuekin edo Izan Bidea bezalako dinamika ezberdinak..., horiek guztiak elkartasunak urte osoan zehar etenik ez duela erakusteko.

Gainera, garai hauetan inoiz baino gehiago konprometitu beharrean gaude: guretzat egun hauek gogorrak dira, baina presoentzat egoera hau egunerokoa da, lau hormaren artean, giltzapean.

Herriaren mobilizazioa ezinbestekoa dela azpimarratu nahi dugu. Egunerokotasunean presoan aldarriak kaleetan egon behar du, auzoz auzo, herriz herri ahalik eta jende gehiena kaleetan mobilizatuz aldarri berberaren inguruan, presoan eskubideen eta askatasunaren alde. Amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi gazteok daukagun garrantzia. Gu gara herri honen etorkizuna eta guri dagokigu, inposatutako errelatoaren gaineratik, herri honen memoria bizirik mantentzea, presorik gabeko Euskal Herri bat eraiki arte. ■■■

ERREMATEA




JOSE CASTILLO

SOSTalaritzaz

Ostalarien protestek hautsak harrotu dituzte gurean, krisiari eta jarduera mugeri aurre egiteko dirulaguntzak eskatzen dituzte. Baina ziur esan dezakegu ez dela sektore honen erreskate ekonomikorik izango. EAEko zein espainiar Estatuko oinarri ekonomiko-produktiboak ez du ahalbidetzen.

Askok Alemaniak bere ostalaritza sektorea diru publikoz erreskatatzeko egin duen politika errepikatu nahiko lukete. Baina Alemaniak badu oinarri produktibo indartsu bat eta bere konposizio ekonomikoa ez da zerbitzu sektorean oinarritzen. Gure erakunde politikoak zor publikoiez itota daude eta berandu baino lehen neurri fiskal zorrotzak ezarriko ditu berriz Europak. Oposizioan dauden alderdi sozialdemokratek (gurean EH Bilduk egin bezala) promesa ugari egingo dituzte, baina ezingo dituzte bete.

Protesta hauetan enpresa txikietako klase gatazka ahazten da. Enpresa txikiak ez dira familia bat. Krisi honen lehen kaltetuak ez dira ostalaritza jabeak, lehendik ere baldintza aski prekarioetan bertan lanean zebiltzan langileak baizik, gazteak gehienbat. Inoiz baino beharrezkoagoa da erakunde mugak eta klase batasuna zein independentzia oinarri hartuko dituen politika bat. ■■■



"Egitea gustatzen zait, esplikatzea baino gehiago"

ARAN SANTAMARIA ARTISTA

Pasioz bizi du egiten duen hori Aran Santamaria Garate artistak (Zumaia, 1968). Zeramika lantzen hasi zen aspaldi, eta beste hamaika materialekin esperimentatu ostean, paperean topatu du esparru kutuna; dena den, ez die muzin egiten bestelako material eta elementuei ere. Oxford aretoan ikusgai egongo dira bere hainbat lan otsailean, eta hori aitzakiatzat hartuta, Santamaria gertuagotik ezagutzeko aukera baliatu du Baleikek.

Testua: **Amaia Urbietza Arruti**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Azalduko duzu *a grosso modo* zein izan den zure ibilbidea arte munduan?

Zeramika lantzen hasi nintzen Debako eskolan. Han urtebete egin nuen, eta handik joan nintzen Aiako tailer batera. Hura eskola antzeko zerbait zen, eta elkarrir erakusteko sistema batekin ibiltzen ginen garai hartan. Grabatua, zeramika eta eskultura zeuden han. Sei urtez edo egon nintzen han, eta gero nik eta beste hiru lagunek pabilioi bat hartu genuen Zumaian, Zelai Azpin. Han instalazioa lantzen hasi nintzen, eta gauza gehiago probatzen: zeramika utzita, instalazio kontuak, muntaiak eta abar. Hor beste bost urte igaro nituen, eta gero bakarkako estudioa hartu nuen.

2012an edo hasi nintzen liburuekin lan egiten. Egiten ditut liburuak desegin, eta berriro egin. *Collage* moduan eta zabalgarri moduan, horiekin jardun dut asko. Horretan hasi nintzenen erakusketak egin nituen liburu dendetan, horretarako lekutxoak zutenetan. Gaur arte, liburuekin jarraitzen dut. Ez dut liburu kontzeptua soilik lantzen; horrekin lotuta, agian, zintzilik jartzen ditut edo sartzen ditut lanean nolabait, esaterako, zapatak, edo bestelako objektuak. Paperetik joan naiz objektuetara.

Zer adjektibo erabiliko zenuke zure lana definitzeko?

Ez nago ziur. Badago alde jostari bat, eta beste bat poetikoagoa. Gauza sutilak ditu, finak, baina badu baita ere jolasaren alde. Bi alde horiek ditu. Ez dakit beste era batera definitzen.

Artista batzuei ez zaie gustatzen etiketak jartzea beren lanari. Zu horietakoa zara?

Nire kasuan, ez dakidalako da. Ez da erraza. Niri, behintzat, orokorrean, gustatzen zaidana da egitea. Aztertzea ere bai, pixka bat, baina... ez dut egiten teoria bat, "hau egin dut honengatik eta abar". Naturaltasuna gustatzen zait, eta egitea, esplikatzea baino gehiago. Gero, hasten banaiz, agian txapa sar dezaket [kar-kar]. Baina nirea gehiago da egitea.

Gaur egun, konturatu naiz behar bat dela. Orain, egoera honetan, etxean igaro behar baditut hamar egun, hartzen ditut guraizeak, kola eta papera eta hori izaten da salbazioa. Eskerrak!

Horiek dira zure tresnak: guraizeak, kola eta papera.

Bai, eta liburuak eramaten badizkidazu, suntsitzeko, zoragarri.

Nolatan hasi zinen liburuekin?

Ez dakit esaten nola izan zen. Aiara joaten ginenean tailer hartara, bazegoen lekutxo bat zituena Bruno Munari izeneko artistaren zenbait lan. Han ikusi nituen hark egiten zituen





paperezko liburu oso politak, eta han egoten nintzen haiei begira, ez dakit zenbat denbora. Begiak hara joaten zitzaizkidan. Gero bazegoen beste artista japoniar bat ere, Katsumi Komagata. Horiekin nengoen maiteminduta.

Nirera etorrita, gauzak kontatzeko formatuan, hasi nintzen liburu bat hartu eta gainean, adibidez, txoriak jartzen. Gero zabalgarri pixka batekin hasi nintzen, eta hori izan zen nire galbidea.

Beste mundu baterako atea ireki zitzaizun.

Bai. Askotan kasualitateekin gertatzen dira halakoak, edo gustatzen zaizun jendearengan inspiratzen zarenean.

Badaukat beste alde bat ere: hurrekin egiten dut lan. Lantzen ditut ipuinak, liburu ilustratuak... Gustatzen zait sorpresaren kontu hori, kaxoi batean gordetzen diren gauza txikiak, txikitik amonaren etxera joan eta figuratxoak egotea, kromoak... Hurrekin lotuta, mundu horrekin ere badauka lotura honek.

Zertan bilatzen duzu inspirazioa?

Denean, gutxi gorabehera. Kontua da zerk sortzen dizun txinparta, eta, gero, zugana ekarrita, nola adieraziko zenukeen txinparta hori. Ez da bakarrik neure mundua adierazteko

zerbait, beste artistek ere sortzen didate txinparta hori. Gauza asko ditut beste artisten gainean egindakoak.

Orain Donostiako Okendo aretoan daukat jarrita erakusketa eta, esaterako, Cortazarri [Julio Cortazar idazle argentinarra] buruzko pieza handi bat sortu zait han. Horretan Cortazar bera da abiapuntua, eta gero agertzen da nik zer sentitzen dudan Cortazarrekin. Beste obra batean Joseba Sarrionandiaren *Ez gara gure baitakoak* liburuko poema txiki batzuk braillez idatzi ditut, eta horren gainean *collage* bat egin dut. Hor ere liburu horretatik abiatu naiz. Lehen egiten nuen liburua bera zabaldu eta landu, baina orain gauza gehiago ekartzen dizkit, eta batek bestera eramaten nau.

Orduan, liburuaz ez duzu objektu soil bezala lantzen, edukia ere kontuan hartzen duzu.

Bai, kasu batzuetan bai. Okendokoa, esaterako, erakusketa potentea izan da. Otsailaren amaierara arte luzatuko da. Enkargu bat izan da Literakum ekitaldirako, jakin zutelako liburuekin ari nintzela gauzak egiten. Dena den, bestelako materiala ere askotan erabiltzen dut. Erakusketa horretan, adibidez, erroskilaren masarekin egindako letrekin jartzen du erretilu elegante

batean e *un mondo difficile*. Norako den kontuan hartuta egokitzen dut neure obra. Liburuekin zerikusia du, baina material asko sartzen dut.

Azken erakusketa hau salto handia eta ona izan da, eta oso-oso pozik nago.

Oxford aretoan ere erakutsiko dituzu zure lanak [urtarrilaren amaieran egin zen elkarrizketa].

Bai, Okendokoaren jarraian, Oxfordeko. Ondo datorkit, entrenatuta nago dena emanda ibili



"AZKEN ERAKUSKETA HAU SALTO HANDIA ETA ONA IZAN DA, ETA OSO-OSO POZIK NAGO"

"AGIAN PASATZEN ARI NAIZ HAU DIODANEAN, BAINA EGO ASKO DUEN MUNDUA DA ARTISTONA"

"KONTUA DA ZERK SORTZEN DIZUN TXINPARTA, ETA, GERO, NOLA ADIERAZIKO ZENUKEEN"

naizelako Okendokoa prestatzeko. Momentu batzuetan nahikoa harrapatuta ibili naiz, baina ondo. Oxfordeko ari naiz lantzen itxialdiko gauzak, baita Bixente Ameztoi artistaren inguruko zerbait ere.

Egin izan duzu eskultura publikoa ere. Ez dira askotan ikusten horrelakoak inguruotan.

Ez dira horrelakoak ikusten, ez. Bi urtez egin genuen kostako errepidean, Getaria eta Zarautz arteko oinezko ibilbidean. Itsasoaren inguruko zen, aulki bat jarri genuen ispiluekin, oso simplea zen baina jolas handia ematen zuen, islatzen zuelako itsasoa, eta mundu bat egiten zen hor barruan. Nik ere sorpresa hartu nuen hori egin genuenean. Altzariek eta aulkiekin ere egin izan ditut horrelako lanak, esaterako, Zarauzko Narros jauregiko parkean.

Lantzen duzun arte plastiko mota ez da ohikoena edo sona gehien izan ohi duena. Nola dago egoera?

Ez dakit. Alde batetik, erakusketak egiteko asko mugitu behar duzu, fitxa sartu behar duzu lekuetan eta ni horretan nahiko txarra naiz. Leku batzuk ez dizute ezer eskaintzen trukean. Erakusketa jartzen uzten dizute eta dena zuk jarri behar duzu. Beste leku batzuk, aldiz, egokiago tratatzen zaituzte. Oso irregularra da. Lekuaren arabera, agian leku batean egoera oso onean egingo duzu eta beste batean oso txarretan. Desoreka handia dago. Baina, tira, hori beste arloetan ere gertatzen da, ezta?

Desoreka handia ikusten dut, eta leku batzuek ez dizute ezer ordaintzen. Aldarrikatzeko puntu batekin diot hau. Leku batzuetan oso ondo zaintzen zaituzte, baina egoera nola ikusten dudana zaila da esaten. Artisten talderik-eta ez dut ikusten momentu honetan. Talde txikiak agian badaude, beraien artean egiten dutenak lan, baina ez da gremio bat asko elkartu ohi dena. Agian pasatzen ari naiz hau diodanean, baina ego asko duen mundua da. Hori bai, gaur gaurkoz, ni oso gustura ari naiz eta oso eskertuta nago.

Zirrikitueta egokitu behar al du zure diziplinak?

Egia da, zirrikitu hitza erabili izan dut nik ere. Ni non nago? Pentsatu izan dut. Artisautza, artea, ilustrazioa, liburuak... horien artean nago. Nire lan bat jar dezaket arte erakusketa batean, eta beste bat artisau azoka batean. Ez dakit non nagoen. Lehen pentsatzen nuen definitu behar nuela apur bat hobeto, baina orain ez dut hala uste. Batzuetan abantaila da; hor erdian zaudenean, batzuetan, gauza gehiago erortzen dira. ■■■

PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES Izotzuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943-86 21 52



AITA MARI
Jatetxea

☎ 679 10 31 67
aitamarijatetxea@gmail.com
Juan de Zigarán 1 behea • 20750 Zumaia



AIZPURUA
L I B R U R U
D E N D A

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartera
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61



Amama
tel.: 943-54 31 64
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe - Hariz Klinika



Ardantzabide, 3 behea • Zumaia
☎ 943-54 35 70 • ☐ 688 73 38 56


Ardantzabide
ALTZARIAK-ARROZTEGIA

www.ardantzabide.com 

Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 25 32 Tel.: 943-86 16 31

ARDANTZABIDE
TABERNA

Ardantzabide, 12
943-57 22 47



OLAN DEGIA
Arkupel
Nausia, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA
OGI-EDER



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 - Tel. 943-50 91 69



Bosch Service
Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa Balaztak, ABS, ESP
Diesel injezioa Mantentze mekanika
Elektrizitatea/Elektronika Motorraren mekanika
Piztea Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

Azkue

www.ricardoazkue.com
Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)

bai bidea
Taberna • Jatetxea
Bar • Restaurante

f t i



finca
franch
francese
englant
espanol
catalana
sumu
basca
catala
frances
ingles
catalan
francese
castellano
finnish
ingles
basca
catalan

bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 tel./faxa 943-14 83 06
20749 Arroa bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritza
Rilbitoria
Itaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadicriivet.com
www.basadicriivet.com

Goloz: 11-13 / Armatzak: 16-19:30 / Astelehen golozan eta larunbatetan itxia
Larrikidietarako: 605 72 87 07 Etkez ebeko zerbitzua

Turismoa izurritearen garaietan

Martxoan beteko da urtebete izaki ñimiño ikusezin bat guregana etorri eta gizartea hankaz gora jarri, ekonomia dardarka ipini eta gure bizitza eta bizimodua aldatu zuenetik. Sektore asko ari da pairatzen COVID-19aren eragina, eta turismokoa da okerren pasatzen ari denetako bat. Sektore horretan lan egiten duten lau herritarrek beraien hitzetan kontatu digute zer eragin izan duen birusak bere ohiko jardueran eta etorkizunera begira zer aurreikuspen dituzten.

Ekonomiako beste sektore askoren antzera, turismoan lan egiten duten enpresentzat eta banakakoentzat amesgaizto bihurtzen ari da terrorezko istorio hau. Azken urteotan Zumaian indarra hartu duen sektorea da turismoarena. Une gozoak, ordea, iraganean geratu dira, eta pandemiak ekarritako laino beltzaren gerizpean dago sektorea gaur egun, etorkizunak itxaropentsu egoteko albisteak ekarriko dizkion esperoan. BQD Bidaiakeko Lore Urangak (Zumaia, 1968), Flysch Hoteleko Aitor Kareagak (Eibar, 1963), Zumaia Kanpineko Juan Luis Saenzekik (Zumaia, 1972), eta Zumaiaiko Udaleko turismo teknikari Esti Iruretak (Zumaia, 1976) hitz egin digute sektorea bizitzen ari den egoeraz.

Testua eta argazkiak:
Juan Luis Romatet.



"Aukera dugu beste era batera egiteko"

LORE URANGA BQD BIDAIAK

"1992an hasi nintzen turismo munduan lanean, baina sekula ez dut honelakorik bizi. New Yorkeko dorre bikien aurkako atentatuak izan zirenean –justu aurren hogei urte beteko dira–, oso momentu kritikoa bizi izan ziren, baina irailatik urte bukaerara arte iraun zuten. Baina hau gogorra doa, oso-oso gogorra. Kasu honetan, mundu osoko zerbait da, eta gure bizimodua aldatu du.

Egoera honetan ere badago bidaiatu nahi duen jendea. Iaz atzerritar gutxi batzuk etorri ziren hona uda garaian, baina gehienbat autoz etorritakoak izan ziren. Askok, Mediterraneoan bigarren etxea dutenek, hemen bizpahiru egun egin zituzten eta gero hegoaldera joan ziren. Herbehereetatik, Belgikatik edo Frantziatik etorritako jendea zen. Baina, horretaz aparte, ez genuen ia ezer egin. Lau bat bisita egingo genituen pasa den urtean atzerritarrekin: Zumaian bat, frontoian, zesta punta zer zen erakusten; eta Donostian hiru. Besterik ez. Bidaiak, berriz, Menorcara, Lanzarotera, Florentziara edo Parisera bidaiaren bat edo beste antolatuta genuen, baina bestela ezer ere ez. Balira, Indonesiara, halako bidaiarik ez zen egin iaz.

Ematen zuen udazkenean zerbait mugituko zela; beste normaltasun bat izango genuela, eta jendea hasi zen Gabonetarako zerbait prestatzen. Baina azaroan



bigarren olatua etorri zen eta horrekin dena bukatu zen. Horrela gabilta, eta ikusita zer egoeratan gauden, nik ez dut uste Aste Santuan hau gaudituko dugunik.

Enpresetako jendea ere ez da ari mugitzen. Aireportuetan kontrol handiagoak daude, PCR probak eskatzen dituzte, eta jomugak ere dauden egoeran daude. Mugitzen ari dena mugitu behar duelako da, enpresaren batean proiektu bat gauzatu edo jarraitu behar duelako; bestela, ez da ezer mugitzen ari. Multinazional handiak eramaten dituen enpresa batek zioen arazoa ez zela dirua, mugikortasuna baizik. Nonbaitera joan bai, baina zertara? Ezer ez badago, dena itxita badago eta hoteletik atera ezin bazara.

Turismo azoka birtualetan egon gara, Londresen, Cannesen, Italian... Bost azokatan egon gara. Azaro hasieran ematen zuen udaberrirako zerbait mugituko zela, eta egunak aurrera joan ahala aurreikuspenak aldatzen

joan ziren. Aurtengo urrian genituen jarrita esperantzak abenduan egindako azoka batean. Zenbat eta gehiago luzatu arazoa, zenbat eta olatu gehiago izan, guretzat okerrago da. Batek esan zidan atzo 2024ra arte zain egon beharko dugula 2019ko turismo motara itzultzeko.

Gure kasuan, aguantatzen ari gara; urtebetez ari gara eusten. Negean ez duzu fakturatzeko; neguan hurrengo urterako egiten duzu lan, eta 2019ko azarotik gaude horrela. Zumaiaiko bulegoa 2017an ireki genuen, eta iazko fakturazioa, 2019koaren % 9,8koa izan zen. Espero dugu txertoarekin, bigarren seihilekoan, egoera hobetuko dela. Ezkontzak-eta irailera pasa dituzte, eta horrelako gauzeekin esperantza minimo bat badugu. Egiten den edozer gauza txiki handia da gaur egun.

Turismoak indarra hartu du hemen, baina batzuek olatu bat bezala ikusten dute. Leku konkretu batzuetan izan ezik – Donostiako Alde Zaharra, Gaztelugatxe...–, okerreko irudia du jendeak. Beti diot guretzat gustukoa den leku bat atzerritar batentzat are gustagarriagoa izango dela. Guk geuk zaindu behar dugu geure ingurunea, eta pandemiaren ondoren susperraldia motela izango dela ikusita, aukera dugu gauzak hobeto egiteko; aukera dugu gauzak beste era batera egiteko, baita gure aldetik ere. Zenbat eta hobeto zaindu gure ingurunea, egoera hobea izango da hemendik urte batzuetara turismoa berrindartzen denean".

"Beldurra ez, antsietatea da hitza"

AITOR KAREAGA FLYSCH HOTELA



"Bi urte nituela hasi nintzen gurasoekin udan Zumaiara etortzen; beraneantea nintzen. Aita pintorea genuen, paisajista, eta Zumaia leku ederra iruditu zitzaion etortzeko. 22-23 urterekin hona etorri nintzen bizitzera; Eibarren egiten nuen lan, baina 2004an Eibarko lana utzi nuen. Proiektuarekin, hotelaren ideiarekin, orain zortzi urte hasi ginen. Denbora honetan Zumaian gauza asko gertatu dira: pelikulak grabatu dira, eta Geoparkea ere lan ona egiten ari da. Uztailean beteko dira lau urte hotela zabaldu genuela.

Askotan pentsatzen duzu zer gerta daitekeen hotel batean: uholde bat, sute bat. Baina halako desastre bat ez. Pandemiaren aurretik ondo ari ginen lanean. Birusa Txinatik hedatzen ari zela entzuten zenean, otsailean, guk bagenituen erreserbak martxorako edo udarako; mugimendu handia genuen, baina martxo horretan itxi gintuzten. Bezeroek erreserbak

bertan behera utzi zituzten, eta aurreratutako dirua itzuli behar izan genien. Gogorra izan zen, zaila. Baina, hala ere, esan behar dugu udan lan egin genuela. Uda martxoaren parekoa izan balitz, desastrea izango zen. Baina garrantzitsua da maiatzetik urrira arte, Pilare egunera arte, nahiko ondo egin genuela lan. Ez aurreko urtean bezainbat, baina ondo.

Udazkenean etorri zen bigarren olatua. Udazkena behe denboraldia da, eta urtaro hori galdu genuen. Udaberritik aurrerakoa garrantzitsua da guretzat, eta ez dakigu zer estrategia erabili. Ez dakigu nola egongo garen; inork ez daki. Aurtengo urtea nolakoa izango den ez dakit; desesperatuta gaude.

Atzerritar asko etortzen zen, eta batzuk urtero etorri izan

"URTE HAU NOLAKOA
IZANGO DEN EZ DAKIT,
DESESPERATUTA
GAUDE"

dira: Poloniatik, Belgikatik, Frantziatik, urtero. Horiek ez dira etorri. Baina urtean zehar inguruko enpresekin egiten dugu lan, hona lanera etortzen den jendearekin. Orain, telelanarekin, jende gutxiago dator, baina baditugu bezero batzuk. Langile horiei gosaria eta afaria ematen diegu. Hori da eskaintzen dugun zerbitzua. Turista batzuei logela alokatzen badiezu –eta deitu duten turista batzuei ezezkoa eman diegu–, zerbitzu osoa eskaini behar diezu, eta egun osoa eman behar duzu hemen. Hotela zabalik mantentzeak diru bat suposatzen du.

Lantegietako bezeroak telelana egiten hasi dira, eta normaltasunera bueltatzen garenean ez dut uste langile horiek hotelera itzuliko direnik. Hegazkina hartu, hotelera etorri... Egun bat galtzen duzu horrela, eta hori enpresentzat dirua da. Lan hori etxetik egitea baduzu, dena da probetxua. Gero, gainera, bidaiatzeko jarri dituzten zailtasunak daude. Horrekin guretzako lana jaitsiko da, eta beste estrategia batzuetan pentsatu beharko dugu.

Etorkizuna nola ikusten dudan? Beldurrarekin ez; hitza antsietatea da, zer gertatuko den ziurgabetasuna. Ez dakigu maiatzean normal lan egingo dugun, edo ekainean izango den; hiru hilabetez lan egingo dugun ondo, edo bi bakarrik izango diren; ez dakigu laugarren olatua etorriko den. Pentsatzen genuen 2021a 2020a baino hobea izango zela, baina, beno, gaizki hasi dugu!".

"Geroz eta okerragoa da egoera"

JUAN LUIS SAENZ ZUMAIA KANPINA

"2020an bisitarien errekorra hautsiko genuela uste genuen; 2019ko zenbakiak hobetuko genituela. Hori zen gure aurreikuspena 2020ko otsailan. 2019a oso urte ona izan zen guretzat, eta turismoaren sektorean mugitzen garenontzat. Kanpin berria gara, eta 2020an bost urte bete genituen; jendea ere ari zen gu ezagutzen. Kanpotarrekin ere lanean ari ginen, eta sekulako urtea izango zela pentsatzen genuen. Baina dena pikutara joan zen.

lazko udan lan egin genuen. Zenbat lan egingo genuen? 2019ko garai bereko % 75? Ekainaren erdialdera zabaldu genuen, eta martxo baten antzeko fakturazioa egingo genuen hilabete horretan. Uztailean gauza mugitzen hasi zen, baina kanpotarrak falta ziren. Abuztuan bai, abuztuan ondo egin genuen lan, eta okupatzearen % 80-85 izango genuen. Baina une horretan osasun neurri berriak jarri zituzten, jendeak pentsatzen zuen konfinatuta geratuko zela, eta alde egin zuen. Hor erreserba pila bat bertan behera geratu ziren, eta abuztuko azken hamar egunak desastrea izan ziren. Egun horietan lan egiten utzi baligute, abuztuko kanpaina salbatuko genuen, aurreko urteko betetzearen % 90arekin. Horrekin konformatuko ginen; ekainean, uztailean, abuztuan eta iraileko lehen hamabostaldian lan egin izan

bagenu, denboraldia salbatuko genuen, lantaldean murrizketarik egin gabe. Urtea hala moduz salbatu genuen, eta 2016ko betetze kopuruetara itzuli gara, kanpinaren jardueraren ia hasierara.

Euskal Herriko eta Espainiako turistak etorri zitzaizkigun iaz. Kanpineko bezero berriak ere etorri ziren, gure kanpina oraindik probatu ez zuena. Birusarekin jende bati beldurra ematen zion hoteletan sartzeak, eta konturatu gara bezeroen batez besteko handi bat berriak zirela.

lazko urriaren 1etik kanpina itxita dugu. Bungalowak jabetzan dituztenentzat zabalik izan genuen urte amaierara arte, eta orain justu-justu inguruko enpresetako langileentzako dugu zabalik, denok dakigu-eta herriko alokairua nola dagoen. Haietzat ari gara zabaltzen, zerbitzu bat eskaintzeko, baina ez dugu probetxurik ateratzen. Behe denboraldian kanpotarrekin egiten genuen lan, baina konfinamendu hauekin guztiakin horiek ere ezin dira mugitu, eta ez zuen konpentsatzen lantalde osoa lanean izatea. Kanpin berria izanda, maileguen zama

"KANPIN BERRIA
IZANDA, MAILEGUEN
ZAMA HANDIA
DUGU"



handia dugu. Hemen zaude lanak egiten, baina ez duzu probetxurik ateratzen eta, buru aldetik horrek asko izorratzen zaitu. Azpiegiturak ikusten dituzu, egin duzun lan guztia... ezertarako ez. 2021an ez badugu uztailean, abuztuan edo irailean lan egiten, 2016ko kopuruetara heltzen ez bagara, gaizki ibiliko gara; ezingo dugu askoz gehiago jarraitu.

2021era begira ez dugu aurreikuspenik. Egoera txarra da, eta egunetik egunera okerragoa. Hasieran, otsailaren amaieran irekitzekoak ginen, baina olatuaren eta kanpotarren mugikortasuna edo mugikortasun ezaren arabera, agian martxoaren amaierara arte itxarongo dugu. Ea apirilean, Aste Santuan, asteburuetan, zerbait mugitzen hasten den; eta ea maiatzetik aurrera, eguraldi onarekin lan egiten dugun".

PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretegia · asador

José Blázquez

Patxita Ekezarrate, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 98
asadorbasusta@hotmail.com



EDU
ZUMAIAKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com



RPS 18/16

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsi@ekinsi.com www.ekinsi.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNIO
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Behoko plaza tel./faxa: 943-14 33 95

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

Garaa



Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure-Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Iriondo optika



Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orotarako soinua
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak



San Telmo12 943-86 07 60

"Hemendik indartuta aterako garela uste dut"

ESTI IRURETA ZUMAIAKO UDALEKO TURISMO TEKNIKARIA

"Aste Santutik udazkenera arte da goi denboraldia bisitei dagokienez; oso ondo funtzionatzen dute bisita hauek. Iaz garai potentea galdu genuen: Aste Santua eta udaberria, jendea ezin zelako mugitu; hor ez zen bisitarik egin. Baina behin berriro martxan jarri ginenean, ahal bezain pronto hasi ginen berriro bisitekin".

Iazko udan oso ondo funtzionatu zuten bisitek. Banuen esperantza hori, jendea gogotsu zegoelako; etxean egotetik kalera ateratzeko gogoia zuen. Egongo zen beldurtutako jendea, baina bazen segurtasunarekin egiten diren aisialdiko ekitaldietan parte hartzen deseatzen zegoen jendea. Datu bat emango dut: 2019ko uztaileko eta abuztuko bisitetako datuekin alderatuta, iazkoa % 9 bakarrik jaitسي zen. Datuak izugarriak dira. Baina hori baino hobea da ez zela intzidentziarik izan. Geoparkeko bisita hauek guk antolatzen ditugu, eta enpresa batek eramaten ditu, Begi Bistanek. Segurtasun protokoloari oso zorrotz jarraitu genion bai guk, baita enpresak ere; oso ondo koordinatu ginen, eta niretzat datu garrantzitsua da bisita horietatik 10.000 pertsona pasa ondoren, ez zela intzidentzia bat bera ere izan. Bi ikuspuntu horietatik arrakasta izan zen, eta nik uste aisialdi programa hau



indartuta aterako dela hemendik. Ziur nago.

Udaren ondoren bigarren olatua etorri zen, eta eremu gorrian sartu ginen. Hau oso gogorra da turismo arloan lan egiten duten enpresentzat, eta oso-oso kaltetuak ari dira izaten. Baina nik uste gurea jomuga interesgarria dela. Kostaldeko herri txiki bat gara, Geoparkea gara, mendia ere hor dugu, eta jarduera pila bat antolatzen da; Zumaiako kultur egitarauarekin jendea txundituta dago, eta jendea deika ibiltzen da Donostiatik, Hondarribitik... Jomuga interesgarria da, eta COVID-19aren garai honetan leku txikiak gehiago bilatzen dira. Alde horretatik, ondo posizionatuta gaude.

Bisiten programa mantendu egin genuen 2020an, baita indartu ere. Iazko udan Kofradia eta San Telmo ermita

"GARAI HAUETAN LEKU TXIKIAK GEHIAGO BILATZEN DIRA; ONDO POSIZIONATUTA GAUDE"

zabaldtu genituen bisitarien orduetegi jakin batekin.

Eskaintza gero eta erakargarriago egin nahi izan dugu, eta joera hori mantenduko dugulakoan nago; bisitari gehiago ekartzeko aukerak handitzea garrantzitsua da. Behin hemen egonda, agian zerbait hartuko du, eskaparate bat ikusi eta dendan sartuko da, eta akaso alojamentua hartuko du, eta turista bihurtu.

Ezin dut esan noiz hasiko garen bisitekin. Begira ari gara zer egoeratan gauden, eta horren arabera hartzen ditugu neurriak. Baina gorrian egoteak min handia egiten du. Izaitez oso optimista naiz, eta iazko udan jendeak erantzungo zuela aurreikusitua nuen; denboraldi zati bati eusteko gai izango ginela nioen. Hala ere, iruditzen zait gure enpresei kostatuko zaiela bere onera etortzea, izugarrizko kolpea izan delako turismoarentzat. Esfortzu handia egiten ari dira, eta kostatuko zaie. Baina hemendik indartuta aterako garela uste dut". ■■■■

Frutari, eta ez fruta saltzaile

Nieves eta Jose Chorro, frutariak

Askorako eman dezakete lau hamarkadak. Horixe da, hain zuzen, Chorro anai-arrebek Chorro frutategian egin duten denbora. 40 urte, haien aitak 1970eko hamarkadaren amaieran sortutako negozioaren lekukoa hartu eta ogibidea erraietaraino ezagutzeko. 40 urte, elikadura ohiturak eta, orokorrean, bizi ohiturak aldatzen ikusteko. 40 urte, milaka fruta erntzen, heltzen nahiz usteltzen ikusteko, sasoz sasoi eta urtez urte errepikatzen den bizi ziklo batean.

Testua: **Dorleta Agiriano Lai**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Milaka kolore, usain eta zaporek bete dute Chorro fruta denda azken lau hamarkadetan, eta Nieves eta Jose Chorro Basadiko bazter horretatik ikusi, usaindu eta dastatu dituzte guztiak, baita hainbat eta hainbat bezerok ikus, usain eta dasta zitzaten ahalbidetu ere.

“40 urtetik gora zituela geratu zen langabezian gure aita. Beste lan baten bila hasi zen, baina, orain askori gertatzen zaien bezala, ez zuen ezer topatu. Hiru seme-alaba zituen, eta hipoteka bat ordaintzeko. Orduan bururatu zitzaion frutategi bat martxan jartzea”, azaldu dute chorrotarrek. Hasieran, Basadiko kale baten izkinan zegoen biltegi bat izan zuen egoitza nagusi. Plazan zegoen merkatuan jartzen zuen postu txiki bat

goizero, eta, arratsaldeetan, inguruko hainbat baserritan banatzen zituen produktuak; “Aizarnazabalen, Oikian, Endoian edota Arroan”, anai-arreben esanetan.

19 urte zituen batak eta 15 besteak, eta orduan hasi ziren “aitari laguntzen” eta mundu horretan “murgiltzen”. “Bekario sartu ginen eta postuan onartu gintuzten”, jo digu adarra Nieves Chorrok. “Baserrietara joaten ginen, eta lotsa ematen zigun hasieran. Iristen ginenean, oihu egiten zuen aitak: ‘fruteroa!’ Baina hori ere gainditu genuen gero. Edonondik dirua lortu beharra dagoenean, ez dago besterik”.

Martxan jarri eta urtebete ingurura erosi zuten lokala Basadin, eta gaur egun hor jarraitzen dute. Hala ere, frutak eta barazkiak inguruko baserrietan banatzen jarraitu zuten urte luzez, bai



irrimarra



eta plazako merkatuan postua jartzen ere. Hori, baina, erabat aldatu zen, alde batetik, Nieves eta Jose Chorroren ama gaixotu zenean, eta, bestalde, plaza eraldatu zutenean eta han postua jartzeari utzi behar izan ziotenean. “Erretiroa hartu zuen gure aitak, ama zaindu ahal izateko”, diote anai-arrebek; “Orduan, guk biok jarraitu genuen fruta dendan”.

Ogibide bakar

“Guk hemen egin dugu lan beti, ez gara beste inon aritu”, nabarmendu du Jose Chorrok. Gainera, haien langile jarduera toki berean amaitzea espero dute biek, Nieves Chorrok adierazi duenez: “Gure asmoa da hemen jarraitzea erretiroa hartu arte. Hori izango da gure borroka, ordura arte irautea”. COVID-19aren agerpenetik fruta dendako “salmentek gora egin” dutela adierazi

digute, baina horren aurretik, egoera aski latza bizi zutela diote: “Hamar urte inguru generamatzan etengabe behera egiten”.

Bi frutariak seme bana dute, baina ez dute uste frutategiko hirugarren belaunaldi bilakatuko direnik: “Batek daki gero zer gertatuko den, baina une honetan, geroari begirata, ez dirudi gure atzetik etxeko inor datorrenik negozioari jarraipena ematera”. Hala ere, horrek ez die nahigaberik eragiten. “Gu beti egon gara hemen eta garbi dago lanbide honen bidez ez dela inor aberastuko. Guk ez daukagu Mercedesik denda kanpoan aparkatuta, lanerako furgoneta baizik. Egia esan, ni ez nau mintzen negozioak gero ordezkorik ez izateak”, dio Nieves Chorrok. “Izatekotan, pena ematen didana da negozioa hor geratzea. Hala ere, ikusita zein den gainera datorkigun etorkizuna, ez dit penarik ematen

Nieves Chorro

- **Adina:** 60 urte.
- **Ikasketak:** Lanbide Heziketa 1.
- **Lanbidea:** frutaria.
- **Frutaria ez banintz...** administrazio publikoan.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** esertzea.

Jose Chorro

- **Adina:** 56 urte.
- **Ikasketak:** Lanbide Heziketa 2.
- **Lanbidea:** frutaria.
- **Frutaria ez banintz...** jubilatua.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** esertzea edota semearekin Play Stationean jolastea.



etxeok jarraipenik ez emateak, gaizki pasatuko zutelako, nire ustez”, gaineratu du Jose Chorrok.

Aldaketen lekuko

Anai-arrebek gauza ugari eraldatzen ikusi dituzte azken 40 urteetan, eta beste batzuk, antzeko mantentzen. Esaterako, aipatu dute auzoa ez dela asko aldatu azken hamarkadetan, saltokiei eta familia negozioei dagokienez, behintzat: “Parafarmazia da berria den denda bakarra. Gainontzean, okindegia, arrandegia, harategia edota gure frutategia hemen mantendu dira azkeneko hamarkadetan eta, gaur egun, horietan jarduten dugun bigarren belaunaldia gara gehienetan”.

Fruta dendan saltzen duten eta bezeroek erosten dituzten produktuen sortan, ordea, begietsi dituzte aldaketak, eta azpimarratu dute, gaur egun, “aukera eta aniztasun gehiago” dagoela eskaintzan. “Hasi ginenean, adibidez, lau sagar mota genituen. Orain, 22 ditugu”.

Ez dira, baina, salgai dauden fruta eta barazki motak soilik aldatu. Bi frutariak ohartu dira erosteko modua ere desberdina dela orain: “Lehen baino kantitate txikiagoak eskatzen dira egun, baina gauza ezberdin asko erosten dira. Orain bezeroak etortzen dira eta esaten digute: ‘Emaizkidazu bi laranja, bi sagar eta bi madari’. Lehen esaten ziguten: ‘Emaizkidazu bi kilo laranja, edo bi kilo sagar, edo bi kilo madari’. Etxeko guztiok jaten genuen berdina lehen, sei pertsona ginen mahai baten bueltan, berdina

jaten. Orain, baina, pertsonalizuagoak dira salmentak, eta aniztasun handiagoa dago etxe bakoitzeko. Gustu propioak ditu bakoitzak, eta egun batean gauza bat nahi dugu, eta hurrengoan beste bat”. “Desberdin jaten da orain, eta gure gustuak aldatu egin dira”, gehitu du Nieves Chorrok.

Salmenten eta, beraz, fruten eta barazkien elikaduraren “oinarria”, ordea, nahiko tinko mantentzen dela uste dute biek: “Oinarria dira madariak, sagarrak, platanoak, zitrikoak... Orain ere antzekoak dira gehien saltzen diren frutak. Zitrikoak dira erreginak eta, gero, platanoak dira salduenak. Izan ere, oso erosoak dira jateko: erraz irekitzen dira, ez dute zikitzen eta edonora eraman daitezke. Sagarra ere asko saltzen da”.

Kuttunak

Fruta gogokoenaren inguruan galdetzean, bat hautatzeko zailtasunak dituzte biek, “guztiak gustuko” baitituzte. Sabela baino, anai-arreben gogoia bete dute frutek azkeneko ia mende erdian, eta nabarmendu dute ez dela berdina “frutari izatea edo fruta saltzea”. “Fruta saltzen duen jende askok ez daki zer saltzen duen, eta ez da kezkatzen jakiteaz. Frutariok bai, kezkatzen gara. Ez dugu telefonoz eskatzen hemen saltzen dugun fruta; gu geu joaten gara eroatera. Mota onenak aukeratzen saiatzen gara, eta badakigu mota bakoitza noiz dagoen unerik onenean, edo noiz txarrean”, dio Jose Chorrok. ■

BALEIKE BAZKIDE

Zuen beharra izaten jarraitzen dugu. Babestu Km0 hedabideak.



Egin zaitez bazkide!

Bazkide egiteko: bazkide@ukt.eus • 943-86 15 45

NON DAGO BALEIKE?



Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali otsailaren 19a baino lehen. **Saria:** Ongizan fisioterapia bonoa. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Alaitz Osa Baleikeko bazkidea da Agurtzane okindegi-ko Sanmarcos tarta irabazi duena. Bere amak jaso du saria.



ongizan
FISIOTERAPIA ZENTROA

MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen digital multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea eta marka irudia



Atari digitalak

06



Diseinu lanak



Telebista

05



Webguneak eta marketin digitala

04



Edukien sorkuntza

03



Komunikazio kanpainak

02



Estrategia eta planifikazioa

B K erto  KH  ZH

S	T	I		A	L
	O				S
L			T		I
	I	O		L	
I	T	A			
	A			I	T

Otsaileko Sudokua

Bete lauki zuriak OTSAIL hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (O, T, S, A, I eta L). Gogoratu, hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Jesus, Maria eta Jose

NESKA-MUTILAAA...!



Handitik txikira



Ordena itzazu freskagarri hauek neurriaren arabera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikieneri 6.

Margotu



engainaria

Bost zati hauetatik bakarra dago margotu behar duzun irudi horretatik hartuta. Zein da? Margotu ezazu zati hori ere.



Beti JAN eta beti gose

MAHAIAN DAGOEN EZER
EZ UKIT !


GONBIDATUAK
DITUGU ETA



Erreparatu ongi irudi hauei. Hau da kuxidada! bi minututan dena lardaskatu dute (esnea isuri, ketchupa bota, arrautza bat puskatu...), eta jan ere egin dute. Konturatzen al zara zer jan duten? Begiratu ongi eta asmatuko duzu.



DutXara!

Osatu lauki zuri bakoitzari dagokion irudia, honoko domino zati honek zentzua izan dezan.



Zu bai Hamalau!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamalau dira guztira.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA

ORRAZTEGI ZUMAI A

943-86 20 83

JUARISTI

jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

KABI TABERNA

Pateita Elkezarreta, 15
943-11 74 27

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

KALARI

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

MAIAUR

ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

LOOK INDUSTRY

Maite Elosua
Pelukexi

Auzartzen direnerezat eta ez direnerezat.
Zu zara nire bezeroa.

Erribera kalea 7, 2 atzealdea
638 99 90 38

CROISSANTERIA

pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus **PENCIL**
estudio decoración

Julio Beobide, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan

MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

NOIA S.L.
**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Etegabeko garabi zerbitzua **636 86 78 12 (Zumaia)**
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar indusirgunea, C
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com

LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

OSA BERNIZATUAK

Zoruen kutzilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

OSKARBI KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943-14 31 12
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Indusirgunea, A1 - 4, pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostola@ostolaza.com

Bihotz gutxiegitasuna (I)



ROSA AZKUE

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Zer da bihotz-gutxiegitasuna?

Bihotz-gutxiegitasuna gertatzen da bihotzak ezin duenean gorputzak behar duen odola ponpatu eta konpentsatzen saiatzeko sintomak dakartzanean.

Horrela, muskuluek indarra galtzen dute eta nekea agertzen da, arnasa hartzeko zailtasuna izaten da, likidoak atxikitzen dira eta pultsazioak igotzen dira, konpentsatzeko.

Kausak

Bihotz-gutxiegitasuna normalean honako bihotzeko gaixotasun hauek eragiten dute:

- Miokardio-infartua eduki izana (bereziki handia izan bada).
- Bihotz-balbulen gaixotasunak.
- Bihotz handiak edo dilatatuak.
- Arritmia ugariak dituzten bihotzak.
- Jaiotzeko bihotzeko gaixotasunak (sortzetikoak).
- Aurretiko kimioterapia edo erradioterapia.

Bihotz-gutxiegitasuna agertzeko bide ematen dute honako hauek:

- Adin aurreratua.
- Tentsio arterial altua.
- Odol-hodietako gaixotasuna (gure gorputzeko arteriak hondatzea).

- Alkohola, tabakoa eta kokaina kontsumitzea.
- Azukre-kopuru altua izatea odolean edo diabetesa izatea.
- Ariketa gutxi egitea eta bizitza oso sedentarioa izatea.
- Obesitatea edo gehiegizko pisua.
- Gatz askorekin jatea.

Lehenengoz agertzea edo deskompentsatzea eragiten duten faktoreak identifikatzeko ahalegina egin behar da; izan ere, kausa saihestu edo zuzentzen bada, hobeto kontrola daiteke

Sintomak

- Aire falta delako sentsazioa
- Lo egiteko burkoak behar izatea edo lo egiteko gorputza altxatu behar izatea.
- Nekea edo ahultasuna
- Hantura, likidoen atxikipenarekin; atxikipena, normalean, orkatiletan izaten da, eta pisuak gora egin ohi du, justifikaziorik gabe

"BIHOTZ-GUTXIEGITASUNA BAT-BATEAN AGER DAITEKE, BAINA OHIKOENA PIXKANAKA AGERTZEA DA"

Bihotz-gutxiegitasun konpentsatua

Bihotz-gutxiegitasuna duen pertsona errekuperatu egin daiteke, jardueretan mugatuta egon ondoren, eta ondo sentitu

Bihotz-gutxiegitasuna deskompentsa dezaketen kausak

Kasu posible asko dago eta, askotan, saihestu egin daitezke.

Medikazioa uztea; medikazio berriak sartzea, besteak beste antiinflamatorioak; neurriz kanpoko ahalegina egitea; gehiegi jatea; jateko gaziak hartzea; alkohola edatea; edo likido ugari edatea. Muturreko tenperaturetan egotea desegokia izan daiteke, bai eta bero denean ariketa fisikoa egitea ere.

Alarma-sintomak

Bihotz-gutxiegitasuna bat-batean ager daiteke (ordu batzuk), baina ohikoena pixkanaka agertzea da, apurka-apurka, egun edo asteetan. Pixkanaka agertzeko modu horretan, sintomak agertzen doaz, eta horrela identifikatzeko aukera izan dezakegu eta sasoz hasi esku hartzen, larriagotu ez dadin.

Prebentzioa

Bihotzaren funtzionamendu desegokia prebeni daiteke eta hobetu, gertatu ondoren; horrela, bihotz-gutxiegitasuna eragin dezaketen faktoreak saihestu daitezke. ■■■

PUBLIZITATEA

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: **943-86 13 25**
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 **ZUMAIA** (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskainet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

SOLOZABAI
autoeskolak

Etkezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Talaira
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

Tapaia
Taberna

Erbera kalea
20750 **ZUMAIA** (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA

Izurtari, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (hodilloa)
Saltxitzak, oilskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 • 20750 **Zumaia** (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97

Xanti
ALTZARIAK

Amaiako plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

yoana
ileapaindegia

Amaiako plaza,
2 beheko
943-14 32 78

Zalla

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Upele Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

UKT
UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.

ASTEARTETIK OSTIRALERA, EGUNKARIA:
Urola Kostako HITZA
HILERO, ALDIZKARIAK:
Maxixatzen + Uztarrria + Baleike + Karkara

UNEORO:
maxixatzen.eus + uztarrria.eus + urolakosta.hitza.eus +
baleike.eus + karkara.eus + erloledebista.eus +
zarauzkohitza.eus

EGUNERO:
Erlo telebista
ASTERO:
bideoak gure webguneetan

+sare sozialak
f

Ez behartu haur bat nahi ez duena jatera



MIREIA CENTENO
PSIKOLOGOA

Haur bat jatera behartzeko modu asko daude. Bortitzena koilara edo janaria indarrean ahoan sartzea izango litzateke. Baina badaude beste modu batzuk. Adibidez, zigorrak erabiliz, bukatzen ez badu telebista edo postrerik gabe utziz. Edota sariak erabiliz, eta berdintsua izango litzateke. Modurik samurrena ere behartzea da: “Maittia... bukatu platera eta horrela gero postre goxo-goxoa jango duzu!”.

Haur bat jatera behartzea ez da aukera bat. Zer gertatzen da hori egiten dugunean?

- Bere gorputzaren barne seinaleak entzuteari uzten dio. Askotan behar duena baino gehiago edo askoz gehiago jaten egongo da. Kontuan izan behar dugu tamaina eta adin berdineko bi haurrek jan dezaketen kantitatea oso ezberdina izan daitekeela eta gehienetan helduok izaten ditugun espektatibak ez datoz errealitatearekin bat.
- Ez dugu bere gorputza errespetatzen. Ez dugu baloratzen. Bere gorputza da, eta argi izan behar du berak erabakitzen duela zer sartzen duen bere gorputzean. Bortizkeria da indarrez janaria sartzea, edo

xantaiak erabiltzea horretarako.

- Ez ditugu bere gustuak errespetatzen. Batzuetan beraien nahiak ez dira gure berdinak eta hori entzun egin behar dugu. Askotan gustuko janarien aukera oso mugatua da eta hori ohikoa da. Adin txikiko haurrak ziur sentitzen dira oso ondo ezagutzen dituzten jakiekin, eta horiek gustura jango dituzte, baina besteak ez. Eta garrantzitsua da hori errespetatzea.



Orduan, zer egin dezakegu guraso edo hezitzaile bezala?

- Txikitxoak direnean erabili BLW metodoa. Sei edo zazpigarren hilabetetik aurrera, janaria osorik eskaintzean datza, berak bere kabuz eta bere eskutxoekin jateko. Horren inguruan informazio eta formakuntza asko dugu gaur egun eskura. Haurrak janariarekin erlazio egokia eraikitzen laguntzen du eta bere garapen kognitiboaren

BORTIZKERIA DA INDARREZ JANARIA SARTZEA, EDO XANTAIK ERABILTZEA HORRETARAKO

garapenerako onura asko ditu.

- Otordu bakoitzean, 3 plater osasuntsu eskaini (lehenengoa, bigarrena eta postrea), eta bakoitzetik nahi duen kantitatea jateko askatasuna utzi. Gosez geratzen bada, eskaini berriro beste edozein jaki osasuntsu. Eta horrela, bere elikadura ez da baldintzatua izango.
- Osasuntsuak ez diren elikagaiak ez eskaini egunerokotasunean, baina ez debekatu, eta noizean behin kontsumitu, debekurik gabe, eta disfrutatuz. Errurik gabe.
- Eta horrekin lotuta, kontuz haurrei zuzenduriko telebistako kateekin. Publizitate ugari dago eta hainbat produkturen inguruan beraien interesa asko pizten dute. Horrelako estimuluak saihesteak asko lagundu dezake. Erabili publizitatetik gabeko aplikazioak posible bada. Horrela, muga gutxiago jarri beharko dituzue. Ez baita erraza haur bati ulertaraztea iragarkietako produktu horiek egunerokotasunean kontsumitzea kaltegarria izan daitekeela.
- Eta gogoratu: elikadurarekin edozein arazo baduzue, bilatu nutrizionista baten aholkularitza. ■■■



Etorkizuneko energia I: Trantsizio energetiko globala

Gradu bat. Horixe da azken 150 urte eskasetan (1880. urtetik gaur egun arte) atmosferak jasan duen tenperatura aldaketa. Atmosferan eragin dugun tenperatura aldaketa, hobeto esanda, Giza jardueraren ezberdinetan isuritako negutegi efektuko gasen (NEG) ondorioz azken 800.000 urteotan (ez, ez dago akatsik Oekin) izan den karbono dioxido, metano eta nitrogeno oxido kontzentrazio altuena aurki genezake gaur egun atmosferan.

Testua: **Markel Peñalba.**

Gradu bat. Hutsala dirudien gradua eta, aldi berean, komunitate zientifiko osoa eta gizartearen zati gero eta haundiagoa beldurrak airean jarri duen gradua. Batez ere, hamarkadetan zehar ohartarazitako berotzearen aurrean hartutako neurri hutsalak kontuan hartuta. Izan ere, lehen gradu horrek baino, ondoren etorriko diren graduek sorrazten dute benetako ikara: ekosistemen suntsitzea, espezieen desagertze masiboak, itsas-mailaren igoera, uholde eta bero-olde bortitzak, etab. luze eta katastrofikoak. Are gehiago, gradu erdi batek ere sekulako eragina izan dezake sistema klimatikoan. Izan ere, inflexio puntu klimatikoak (ingelesez: *climate tipping points*) gainditzea ekar dezake gradu erdi bateko igoerak, eta bat-bateko aldaketa bortitz eta itzulezinak eragin¹.

Erabateko hondamendia saihestuz (ez arriskurik gabe, jakina), “berotzea 2 °C-ko mugaren oso azpitik utzi, eta, ahal den neurrian, muga hori 1,5 °C-ra murriztu ahal izateko” NEG isurien murrizketa



Agentzia Internazionalaren txostenean energia kontsumoa 2030 aurretik % 17 murriztuko dela aurreikusten du, beti ere karbono neutraltasuna 2050. urterako lortu ahal izateko akzioak martxan jartzen badira². Horretarako, ezinbestekotzat jotzen ditu, besteak beste, mendebaldeko gizartearen ohitura aldaketa sakonak.


Badira, ordea, bestelako aurreikuspenak ere. Horiek, energia berriztagarrien hedapen masibo hutsean oinarritutako estrategiak proposatzen

dituzte, baina zientzialariek sarri frogatu dute estrategia horiek ez direla bideragarriak³. Alde batetik, berriztagarrien hedapen hutsak ez lituzke NEG isuriak behar bezain azkar murriztuko; bestetik, hedapen masibo horretarako beharrezko lehengaiak mugatuak dira⁴. Hori dela eta, ondorioztatu da NEG isurien murrizketa azkar eta esanguratsua helburu murriztaile absolutuekin soilik lor daitekeela, hau da, lehengaien, energiaren eta isurien murrizketak bateratuz⁵. Hainbat ikerketak erakutsi dute egungoa baino energia kontsumo dezente baxuagoarekin ere bizitza duinak izatea oso posible dela, biztanleria hazkundera ere kontuan hartuta⁶.

Piramidearen bigarren mailan, lehentasunen eskalan bigarren postuan, beraz, **energia efizientziaren hobekuntza** kokatzen da. Energia sistema ideal batean, erabiltzaileon eskaria hornitzeko behar den energia soilik sortu beharko litzateke. Gure energia sisteman, ordea, energia galera handiak izaten dira sistemaren puntu ezberdinetan. Alde batetik, elektrizitatea iturri fosiletatik sortzen den edozein zentraletan, erregai fosil gisa (gasa ala ikatza) sartzen den energiaren %40a galtzen da gutxienez, eta galera horiek % 60tik gorakoak ere izan daitezke. Horrez gain, energia sorkuntzarako zentral horiek kontsumo puntuetatik urrun kokatu ohi direnez, sortutako energia hori herritarrengana eramatean beste %10 inguru galdu ohi da. Beraz, asko jota, erregai fosilek daukaten gaitasun energetikoaren erdia da benetan aprobetxatzen dena.

Erregai fosilezko zentralak energia berriztagarriekin ordezkatzean, aurreikuspen optimistek diote galerak %42 murriztu daitezkeela⁷, baina historian begiratu besterik ez dago teknologia berri eta efizienteagoek izan duten eraginaz ohartzeko: efizientzia handituz joan den heinean, energia kontsumoa ere handitu egin da azken 200 urteetan, energia horren eskuragarritasun handiagoagatik; *Jevonsen paradoxa* edo *errebote efektua* bezala ezagutzen den fenomeno⁸.

Azkenik, piramidearen puntan kokatu ohi da **sektorearen elektrifikazioa eta energia berriztagarrien hedapena**, hau da, energia iturri fosilak NEG isuri baxuko iturriekin ordezkatzea. NEG isuri baxuko iturrien artean energia nuklearra ere aipatzen da sarri, baina energia nuklearrak baditu energia berriztagarriek ez dituzten muga eta desabantaila garrantzitsuak. Energia nuklearra aipatzean istripuen zein erasoen arriskua eta hondakinen arazoa aipatzen dira, baina badira beste bi aspektu esanguratsu: ikuspuntu ekonomizista huts batetik, azken generazioko zentral nuklear baten kostua zentral fotovoltaiko edo haize-energia parke batena baino ia lau aldiz altuagoa da; bi iturri berriztagarri horiek dira, gaur egun, zentral berri bat eraikitzekeko iturri merkeenak⁹. Bestalde, zentral



nuklear berrien eraikuntzek atzerapen eta gailur handiak izaten dituzte (ia 20 urte eta aurreikusitakoaren kosteua bikoiztu proiektatzetik martxan jartzera arteko epean)¹⁰, trantsizio azkarra galaraziz.

Energia berriztagarrien hedapena ez da arazo teknologiko hutsa, ordea. Energia berriztagarrien hedapen maila eta hedapen hori egin beharreko abiadura kontuan izanda, ezinbestekoa baita teknologia berriak garatzea, teknologia berri horiek ekonomikoki lehiakorak izatea eta teknologia horien onarpen sozial zabala izatea. Lehen bi aspektuak oso garbi ikusten dira, baina hirugarrenak berebiziko garrantzia du gaur egungo testuinguruan.

Azken bi hamarkadetan energia berriztagarrien proiektu askok atzerapenak izan dituzte edo bertan behera geratu dira NIMBY (ingelesezko *Not In My Back Yard*) edo SPAN (gaztelanierazko *Si, Pero Aquí No*) fenomenoen ondorioz. Kasu askotan, energia berriztagarrien azpiegiturak beharrezkotzat jotzen dituzten, baina azpiegituren kokapena edo kudeaketa eredia kritikatzan duten mugimendu lokalak sortzen dira, azpiegitura konkretu bati oposizioa egiteko. Horrelako egoerak saihesteko, ezinbestekoa da azpiegitura energetikoak ezarriko diren zonaldeetako komunitateekin hartu-eman estua izan eta parte hartzeko prozesuak proiektuaren hasieratik martxan jartzea. Izan ere, herritarrei parte hartzeko eta proiektu eredia erabakitzeke aukera emateak proiektuaren onarpen soziala zabaltzea ahalbideratu ohi du¹¹. Gainera, energia berriztagarrien hedapenak energia kontsumitzaileen profil pasiboa iraultzea ekarriko du, kontsumitzaile huts izatetik produktore eta kontsumitzaile izatera pasaz, prosumitzaile, alegia. Horrela, herritarrak kontsumituko duen energiaren zati baten ekoizle izatera pasako dira, eta sare elektrikoaren partaide aktibo bihurtuko dira.

Energiaren sektoreak transformazio sakona eta azkarra izango du. Ikatz eta gas zentral termikoetako keak haize errotez eta eguzki-panelez ordezkatzea, ordea, ez da bide erraza izango. Hego Euskal Herrian, adibidez, gaurko kontsumoa erdira murriztuta ere, egun daukagun energia berriztagarrien potentzia instalatua bost aldiz biderkatu beharko genuke, eta orain arte ezohikoak izan diren teknologiak, instalazioen eskalak, jabetza-ereduak eta kokaguneak esploratu beharko ditugu. Eta hori guztia hurrengo urte gutxitan, NEG isuriak murriztu eta duintasunez bizi ahal izateko mundu bat mantendu nahi badugu, behintzat.

Datuen jatorria

Elikagaien industria: <https://ourworldindata.org/environmental-impacts-of-food>

NEG isuriak: <https://ourworldindata.org/co2-and-other-greenhouse-gas-emissions>

Energia: <https://ourworldindata.org/safest-sources-of-energy>

Energia berriztagarriak: <https://ourworldindata.org/renewable-energy>. ■■■■

- ¹ Timothy M. Lenton, Johan Rockström, Owen Gaffney, Stefan Rahmstorf, Katherine Richardson, Will Steffen eta Hans Joachim Schellnhuber (2019). *Climate tipping points — too risky to bet against*. *Nature*, 575, 592-596. or.
- ² International Energy Agency (2020). *World Energy Outlook 2020*.
- ³ Jason Hickel & Giorgos Kallis (2020) *Is Green Growth Possible?*, *New Political Economy*, 25:4, 469-486.
- ⁴ Sonter, L.J., Dade, M.C., Watson, J.E.M. et al. *Renewable energy production will exacerbate mining threats to biodiversity*. *Nat Commun* 11, 4174 (2020).
- ⁵ Helmut Haberl et al (2020) *A systematic review of the evidence on decoupling of GDP, resource use and GHG emissions, part II: synthesizing the insights*. *Environ. Res. Lett.* 15 065003.
- ⁶ Joel Millward-Hopkins, Julia K. Steinberger, Narasimha D. Rao, Yannick Oswald (2020) *Providing decent living with minimum energy: A global scenario*. *Global Environmental Change*, vol. 65, 102168.
- ⁷ M. Z. Jacobson et al., *100% Clean and Renewable Wind, Water, and Sunlight All-Sector Energy Roadmaps for 139 Countries of the World*, *Joule*, vol. 1, no. 1, pp. 108-121, 2017.
- ⁸ John M. Polimeni, Raluca Iorgulescu Polimeni (2006) *Jevons' Paradox and the myth of technological liberation, Ecological Complexity*, Volume 3, Issue 4, pp 344-353.
- ⁹ IRENA (2020). *Renewable Power Generation Costs in 2019*.
- ¹⁰ Jacobson, M. (2020). *100% Clean, Renewable Energy and Storage for Everything*. Cambridge: Cambridge University Press.
- ¹¹ Lennon, B., Dunphy, N.P. & Sanvicente, E. (2019) *Community acceptability and the energy transition: a citizens' perspective*. *Energ Sustain Soc* 9, 35.

Txahal baten ibilerak



TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA
@ImanolAzkue

Prest dira COVID-19aren aurkako txertoak eta denok txertatu beharko dugu, pixkanaka. Lehendik ere ezagunak ditugu txertaketa kanpainak (batez ere urtero egiten den gripearena), baina duela 135 urteko batekin alderatuz gero, harrizkeo motiborik aurkituko dugu, batez ere protagonistetako bat txahal bat izan zelako, eta haren arrastoei jarraituko diegu.

Erdaraz bakuna, euskaraz txertoa
Nafarrerria, baztanga edo biruela da gizakiak Lurretik erabat desagerrarazi zuen lehen gaitz infekziosoa, eta txertatzeko programa arrakastatsu eta luze baten ondorioz izan zen.

XVIII. mendearen amaieran, Edward Jenner mediku ingelesa konturatu zen behizainek ez zutela inoiz baztanga larririk izaten, aurretik behi baztanga pasatu izanak giza baztangatik babesten zituelako. Hori ikusita, 1796an 8 urteko haur bati besoa marratu eta zaurian behi baztangadun pertsona baten zornea jarri zion. Sei aste geroago, behi baztangaren sintoma arinak desagertu zirenean, giza baztangaren birusa sartu zion mutilari, baina ez zen gaixotu, antigorputzak

sortuta zeuzkalako, immunizatuta zegoelako. Horixe da gaur egungo txertaketen jatorria, eta “vacuna” izena eman zioten gaztelaniaz eta “vaccin” frantsesez behiaren jatorriarengatik. Euskaraz, berriz, “txerto” erabiltzen hasi ziren; latineko *insertotik* dator hitza, eta berez txertatzea da landare baten adarrean beste landare mota baten adartxoaren itsastea, haren orpotik honek fruituak ekar ditzan; bitxia da nola egin zuen salto hitzak baratzeko edo soroko lanetatik erizaindegira.

Besorik beso, txahalak erabili arte

Baztangaren txertoa emateko, ez zegoen behi baztangaren behar adina kasu, eta hasieran txertoa gizakitik gizakira beso beso pasatzen zuten, garai batean gizakiek elkarri sua zuzi bidez pasatzen zioten bezala. Halaxe eraman zuten txertoa Amerikara 1803an, Alacanteko

BAZTANGA GAITZA EZ ZEN BERRIA GUREAN; AHALEGIN UGARI EGIN ZITUZTEN EZABATZEKO

Francisco Xavier Balmis medikuaren ekimenez: 22 haur umezurtz hartu, Coruñan itsasontzi batean sartu eta Amerikara abiatu ziren; bidaiari, medikuak behi baztanga banan-banan inokulatzen zien haurrei, elkarren segidan eta beso beso, txertoa bizirik iristeko Amerikara¹. Horrela “garraiatzen” zen txertoa, harik eta italiar batek txertoa garraiatzeko beste era erosoago bat aurkitu zuen arte, 1864an: txertoaren linfa² txahal batetik bestera pasatu, gizakiari sartu beharrik gabe. Horrela, txahalen bidez, animalia herriz herri eramanda, txerta zezaketen jendea, zuzenean.

Herriko egoera eta txertaketa

Baztanga gaitza ez zen berria gurean, lehendik ere ahalegin ugari egin zituzten ezabatzeke, baina alferrik. Zumaian egoera ez zen samurra, eta horren erakusgarri da *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian, 1885-03-05ean, azaltzen zen panorama:

“Abandono incalificable

Tenemos noticias fidedignas de que en Zumaya, pueblo muy castigado por la viruela, no tan solo no se han tomado las medidas sanitarias que son de rigor en estos casos, sino que rige el más escandaloso

desorden; la autoridad local no se cuida allí de oponer a la epidemia el dique que aconsejan la ley, la prudencia y hasta el instinto de propia conservación. Ni se fomenta la vacunación, ni se aíslan los enfermos, ni se fumigan y se separan las ropas de los variolosos, ni se desinfectan las habitaciones, ni se observa, en fin, precaución alguna, de un modo oficial y ordenado, para extinguir los focos de contagio”³.

Alkateak gogor eta haserre erantzun zion testu hari,

puntuz puntu, eta Udaleko Osasun Batzordeak zorionak eta eskerrak eman zizkion. Egun berean, Batzordean beste gai hau ere aztertu zuten: Aldundiaren ekimenez, Logroñoko Instituto Higiénico erakundeko medikuak prest zeuden Zumaiaara ere etortzeko Donostiatik, herritarrak txertatzera, eta aho batez onartu zituzten batzordekideek baldintzak eta proposamena; geroago, udal akta batean jasota dagoenez, mediku haiek herriz herri ibiliko ziren “en la vacunación desde la ternera”⁴, hau da, txahal batekin eta jendea zuzenean txertatzen, eta

Aldundiak jakinarazi zien gure agintariei Zumaia zela txahala utzi behar zuen herrietako bat.

Non dago gure txahala?

Ez dago txertaketaren gaineko bestelako daturik, baina pentsatzekoa da dena ondo joango zela. Txertaketa hura ia ahaztuta zeukatenean, bi urte geroago, 1887an, hara non jaso zuten udaletxean Aldundiaren beste idatzi bat, galdetzeko zer gertatu zen Logroñoko hiru medikuek Zumaian utzitako txahalarekin: “Ignorándose el paradero que hubiese tenido la ternera, la comisión ha practicado sus investigaciones,



Edward Jenner lehen txertoa jartzen, Ernest Board-en koadroan. AFP

de las cuales resulta que después de haberse servido de ella en los pueblos desde Usurbil hasta Cestona, fue entregada en esa villa últimamente”⁵. Udal ordezkarien erantzuna, hauxe: “la ternera se vendió en esta villa por el precio de 50 pesetas y que la nueva que prestó esta villa le costó 120 pesetas”⁶. Beraz, mediku errioxarrek txahal bat utzi eta beste bat

hartu zuten, eta berriarekin abiatu ziren hurrengo herrira, Zestoara. Aldundiaren beste idatzi batean azaltzen denez, ekarritako txahala oso egoera kaskarrean zegoen, eta horregatik saldu zuten hain merke, oso diru gutxi lortu zuten: “la exigua suma de 50 pesetas, a causa de hallarse a la sazón completamente escuálida y estropeada”⁷; halaber, Aldundiak agindu

zuen txahal berriaren gastua (128,78 pezeta) aurreko txahala erabili zuten bost herrien artean ordaindu behar zutela, hau da, Usurbil, Orio, Zarautz, Getaria eta Zumaiaren artean (bakoitzak 18,23 pezeta ordainduta), eta salmentako 50 pezetak ere erreklamatu zizkion Zumaiako alkateari, “se servirá usted dar su ingreso en mi Tesorería general”⁸.



Txertaketa, 1890 inguruan, Bartzelonan. BARTZELONAKO UDALA

Zumaian erosi eta medikuek Zestoara eraman zuten txahal harekin zer gertatu zen jakin nahian, zumaiairek idatziak bidali zituzten ibilaldiko herrietara, eta pixkanaka erantzunak jasotzen hasi ziren. Horrela, Azpeitiko alkateak erantzun zuen errioxarrekin han ez zutela utzi txahalik; aitzitik, beste txahal bat ere eraman zutela handik: “no dejaron en esta villa ternera ninguna, sino al contrario llevaron otra que les facilitó este Ayuntamiento; y por más gestiones que practicamos en averiguación de su paradero todo fue inútil”⁹. Elgoibarko alkateak, berriz, han ere ezetz, eta Eibarren edo Bergaran geratuko zela. Gainera, Zumaiako agintariak txertaketan ibili ziren mediku errioxarrekin ere idatzi zieten, eta hango buruak erantzun zenez, txahal hura Eibarren geratuko zen:

“debemos manifestarle que no siéndonos posible

MEDIKUEK TXAHAL BAT UTZI ETA BESTE BAT HARTU ZUTEN; HAREKIN ABIATU ZIREN HURRENGO HERRIRA

después del tiempo transcurrido precisar como deseáramos aquella pregunta, en nuestro deseo de complacer a usted hemos consultado el itinerario seguido por la comisión vacunadora y como tenemos la absoluta seguridad de habernos ajustado a él estrictamente, deducimos con grandes probabilidades que la ternera de que se trata o sea la facilitada por ese pueblo de Zumaya debió quedar en el de Eibar”¹⁰.

Orduan, udal ordezkariak erreklamatzeko erabaki zuten. Azkenean, onartu zuen Eibarko Udalak, 1889an: “después de varias pesquisas practicadas en averiguación del paradero de la res que la comisión vacunadora trajo a esta villa en 1885, quedó en esta localidad, la cual sin conocimiento de la autoridad se sacrificó y se comió”¹¹, eta Eibarko alkateak adierazi zuen prest zegoela zenbatekoa ordaintzeko, kontua helaraziz gero: “el Ayuntamiento está pronto a abonar a esa Villa el importe de la misma, tan pronto como usted me remita la oportuna cuenta”¹². Borondatea, behintzat, bazegoen... Arkatzez, beste orri solte batean, ohar hau dago idatzita, Fernando Trueba Zumaiako udal idazkariaren letrarekin: “A Eibar se mandó la

cuenta con oficio en 16 Abril 87, Ptas. 161-12”¹³.

Oraingoan, 2021ean, txahalik ez daukagu txertaketan, eta komeria gutxiago izango ahal ditugu, batez ere ondorenean. ■■■

¹ Pelikula bat ere badago: **22 Ángeles**. Trailerra hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=1fKX1yFjW8E>.

Bidaia hartan, bereziki azpimarratzekoa da Isabel Zendal galziarraren papera; izan ere, bera arduratu zen umeak aurkitzeaz eta haien osasunaz bidaia osoan, eta historiako lehen erizaintzat ere jo izan dute.

² Linfa: proteina eta linfozito asko duen likidoa, organismoan zehar eta batez ere linfa basoetan zehar zirkulatzen duena (Harluxet hitzegi entziklopedikoa).

³ Egunkariakoa hitzez hitz dago jasota akten liburuan: Zumaiako Udal Artxiboa, 79.01, 1885-03-07an.

⁴ ZUA, 2823 (98), 1885-03-12an.

⁵ ZUA, 79.3, 1887-03-21ean.

⁶ ZUA, 2823 (189), 1887-03-31n.

⁷ ZUA, 79.3, 1887-08-23an.

⁸ Ibidem.

⁹ ZUA, 79.3, 1887-05-11n.

¹⁰ ZUA, 79.3, 1887-06-18an.

¹¹ ZUA, 79.3, 1889-07-11n.

¹² Ibidem.

¹³ ZUA, 79.3, datarik gabe.

AGENDA

ERAKUSKETAK

OTSAILAK 7-28

Zenbat jende kabitzen da bihotz batean? Aran Santamaria.

MARTXOAK 5-21

Frida Kahlo, artista eta aktibista, Aitziber Alonso.

OTSAILA

5 OSTIRALA

Antzerki gaztea: *Porno versus Afrodita*, Benetan be.
Aita Marin, 19:00etan.

11 OSTEGUNA

Zine forum: *Dasatskis* (Beginning, JBA). Zuz.: Dea Kulumbegashvili.
Aita Marin, 19:00etan.



14 IGANDEA

Ikuskizuna: Pirritx, Porrotx eta Marimotots, *Amaren Intxaurrak. Zumaianan, 15:00etan eta 17:30ean.*

17 ASTEAZKENA

Hitzaldia: *Euskara bestela ez gara*, Josune Herrarte.
Oxford aretoan, 18:30ean.

18 OSTEGUNA

Hitzaldia: URVAL ENSEMBLE, Gorka Hermosa eta Jon Maia. *Urolatik Barrena.*
Aita Marin, 19:00etan.

19-20 ETA 21

Klarinete Maratoia II.

24 ASTEAZKENA

Hitzaldia: *Euskara bestela ez gara*, Josune Herrarte.
Oxford aretoan, 18:30ean.

25 OSTEGUNA

Zine forum: *Été 85* (Verano del 85, JBA). Zuz.: François Ozon.
Aita Marin, 19:00etan.

MARTXOA

3 ASTEAZKENA

Hitzaldia: *Euskara bestela ez gara*, Josune Herrarte.
Oxford aretoan, 18:30ean.

5 OSTIRALA

Antzerkia: *Atzerrian lurra garratz*, Huts teatroa + Artedrama.
Aita Marin, 19:00etan.

OHARRA: Egoera aldakorra izanik beti ere aurrez begiratu ekintzak aurrera doazen, eta baita ordutegiak ere.

Etxetik ohiturak sortzen

irakurri
euskaraz

BALEIKE

BIRUS
BIZIT

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.

B K erto  KH  ZH

Kultur bonoei esker, batu **BALEIKE**ren proiektura eta
12 euroko deskontua izango duzu aurtengo kuotan.

Nola utzi genien hau egiten?



Neskamearen ipuina

Egilea: Margaret Atwood
Argitaratzailea: Txalaparta
Argitaratze urtea: 2020
Orrialdeak: 403
Generoa: Narrazioa



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Neskamearen ipuina (*The Handmaid's Tale*) Margaret Atwood idazle kanadarraren eleberria da. 1985ean ikusi zuen argia eta 2020an argitaratu zen euskaraz. Liburu hau idazlearen lanik nagusietako bat da eta, bere lan gehienetan gertatu ohi den bezala, nagusi dira kritika soziala eta alegatu feminista.

Nobela distopikoa da, zientzia fikziozkoa eta futurista. Distopia utopiaren aurkakoa da. Gizarte atzerakoi, maltzur eta iluna deskribatzen digu idazleak, gizarte fikziozkoa, hipotetikoa eta zitala; idazlearen fantasian, istorioa balizko Gileadeko errepublikan gertatzen da. Klima aldaketak Lurraren gainaldea suntsitu du eta Estatu Batuen zatirik handiena desagertu egin da. Gaixotasuna, pobrezia eta birus ezezagunak dira nagusi. Munduko superpotentziek onartu dute gatazka armatuetan berdinketa bat izan dela eta horrek akordio sekretua sinatzera eraman ditu. Akordio horrek superpotentziak aske uzten ditu, inolako oztoporik

gabe, euren inperioetako matxinada gero eta ugariagoei nahi bezala erantzuteko. Biblian oinarritzen den diktadura puritanoa ezarri dute: erregimen teokratikoa, patriarkala, balio atzerakoenak oinarri dituen. Balizko gizarte horretan kutsadurak bizitza baldintzat du, eta mundu mailako antzutasun epidemia bat eragin du. Haurrak izateko gai diren emakumeak oso bakanak dira eta bikote boteredunek neskametzat hartuko dituzte, haienzako umeak izan ditzaten.

Lan egiteko, soldata bat izateko, bikote harremanak eta familia izateko eskubideak kendu dizkiete emakumeei egun batetik bestera, eta gizon boteredunen jabetza bilakatu dira, ugalketa soilerako. Nobelan zehar ez da

**EMAKUMEEZ ETA
 BELDURREZ HITZ
 EGITEN DIGU, LURREZ
 ETA SUNTSIPEN
 EKOLOGIKOEZ**

emakumeen izenik aipatzen, jatorri izenik behintzat. Protagonista Offred da, Fredena, Freed komandanteak errentan duen eta nahieran bortxa dezakeen ondasun soila. Komandantearen emaztea, Serena Joy, antzua da eta Offreden egitekoa bikotearentzat ume bat izatea baino ez da. Bere balioa bere obarioen emankortasunaren arabera da eta hori bizirik jarraitzeko giltza. Giroa itogarrira da.

Offred bere eguneroko bizimodua kontatzen du lehenengo pertsonan eta bide batez bere bizipenen eta barne gogoeten bidez Gilead errepublikan gertatutakoaren berri ere ematen du eta aurreko bizimodua amestu. Narrazioak emakumeez eta beldurrez hitz egiten digu, lurrez eta suntsipen ekologikoez, bizi izatearen eta bizirik irautearen arteko ezberdintasunez. Offred behin eta berriro galdetzen dio bere buruari nola hasi zen guztia. "Baina nola ez ginen konturatu dena aldatzen ari zela?". ■■■

Epikuroren baratzea eta posturoo berdea



XABIER AIZPURUA

Bakoitzak jakingo du 2020. urtea zeren urtea izan zen norberarentzat. Niretzat baratzearen urtea izan zela esango nuke. Gure etxean, baserria izanik, betidanik izan dugu soroa eta txikitatik egon da familiako bizimoduarekin lotuta. Batetik, etxe koentzat jateko nahikoa izatea izan da zergatia, eta, bestetik, azokara eramaten zuten jenero freskoaren trukean sos batzuk lortzea, bestelako gauzak erosteko. Baina tradizionalki baratzearekin lotuta jaso ditudan balioak beti egon dira iluntasun moduko bati lotuak: ahalegina, nekea, lan ugari, diru gutxi, pobrezia eta beharra, prestigiorik eza, ongizatea urri....

Alegia, nik nire haurtzaro eta gaztaro guztian jaso nuen mezua hauxe izan zen: "Ikasten dekena heurretzat izango dek; bestela, badakik, kamio azpikaldean baziok lana nahikua batzan". Ba ote motibazio enpirikoagorik ikasteko? Halaxe egin (ge)nuen, eta iritsi unibertsitatera, bihurtu urbanita, eta kosmopolita, altermundista,

hippy izaten hasi eta pijotuta bukatu, eusnob eta bascool jatorrena nintzela sinesteraino. Eta hara orain, bueltan-bueltan, urteen buruan, gutxien espero zenak heldu ez dio, ba, berriz baratzeke lanari.

Hala ere, hileko jorjala oso neketsua ez den lanbide batek segurtatzen dizunean, baratzeke lanak beste dimentsio bat hartzen du. Ez da ezinbestekoa, aukera bat da, entretenitzeko, norbere jatorduak osasungarriago egiteko, eta hankak lurrera jaisteko (burua ere berekin ekarriko duten esperantzaz). Itxialdi pandemikoan, gurasosaben zaintzarekin baserria lotura eta, aldi berean, ihesbide gisa bizi izan nuen. Arnastoki, haizeleku, *oi lur, oi lur, oi ene lur nerea!*

Horrelaxe, asteak joan eta hilabeteak etorri, neuk hartu

**NEKEA ZEN HURA
PLAZER ITURRI
BIHURTU NAHI NUKE,
NEURE GANBARAREN
OREKA GALDU GABE**

nuen baratzeke gidaritza, ia-ia interes bakar bihurtzeraino egun askotan. Eta gogoratu naiz Epikurorekin, Filosofiako klasetan eman genuen pentsalari estoiko hark Atenasko baratzetik zabaldu zuen ikuspegiarekin: "oinazea saihestu, adiskidantza landu, plazerez neurrian gozatu, bizimodu publikotik alde egin eta heriotzaren eta jainkoen beldur guztiak uxatu". Ez al du iazko urtean buruan ibili ditugun kezkek ederki laburbiltzen?

Kontua da, ordea, jainko zaharrak ahaztu bezain pronto, berriek liluratzen gaituztela eta, neroni behintzat, aspalditxoan Instagrameko erakuslehoan txit eta pit nabilela, noiz jasoko bedeinkazio bat edo noiz hostia bat, bihotz gorriak zenbatzeak ematen duen lotaratu aurreko azken igurtzi horren bila. Baratzeke kontuak @zozomikote_land izeneko kanalean kontatzen hasi naiz, posturoo berdea praktikatu. Nekea zen hura plazer iturri bihurtu nahi nuke, neure ganbararen oreka galdu gabe. Badut 2021erako erronka! ■

Leihoak



JUAN LUIS ROMATET

Trenak abiadura hartu du eta eskuetan dudan liburutik leihora pasatzen da begirada. Etxeak, zuhaitzak, erreka eta ibaiak, animaliak, bidexkak eta autobideak abiada batean pasatzen dira, eta ikusitako guztia prozesatu gabe liburuaren orrietara itzultzen naiz; irakurtzen ari naizen istorioan murgiltzen naiz berriro.

Liburua mahai gainean utzi dut, eta kafe kikara ezpainetara eramanean dut, kafetegiko leihotik hiriko bizitza pasatzen ikusten dudana bitartean. Lanetik bueltan batzuk, ikastetxera bidean besteak, eta etxera itzultzen hurrengoak erosketak egin berri dituztela. Taxiak bezero bila dabiltza, eta bezeroak taxi bila. Autobusek eta txirrindulariek slalomak egiten dituzte kaleetan zehar. Kafea utzi, eta bizitza erreala alde batera utzita, liburuak eskaintzen didan bizitza literariora itzultzen naiz.

Euri tantek leihoko kristala kolpatzen dute. Sofan botata nago, luze-luze, musika jarrita, liburu bat eskuetan dudala. Urteko lehen denboraleak kaleak hustu ditu, eta zerbeza bat edo beste edateko tabernara joateko gogotsu banago ere, ia horizontalean erortzen ari diren euri zaparradek gogoak uxatu eta liburura itzuli naiz, eta sofan postura hobea hartu.

Liburuak eta leihoak, ondo eramaten den bikotea; nire buruan, behintzat. Liburuak ez al dira, azken finean, imajinaziora –edo errealitate gordinera– eramaten gaituzten leihoak. Badaude, baina, literaturarekin hain ondo moldatzen ez diren beste leihoak: digitalak, alegia. Eta ez noa hemen liburu digitalekin sartzera, paperaren jarraitzaile sutsua izanda ere.

“Ohiturak ikaragarri aldatu zaizkigu, mugikorrarekin, tabletarekin. Irakurtzen dugu ikaragarri, baina ez liburu oso bat; Interneteko artikulua zati batzuk irakurtzen ditugu, sare sozialetako edukiak”, zioen Lander Irizarrek abenduko Baleike aldizkarirako egindako elkarrizketan. Eta irakurtzeari buruz dioena ikus-entzunezkoei ere aplikatu dakieke. Argi edo soinuaren bidezko jakinarazpenak, mezuak eta txioak, sare sozialetako lagun izateko eskaerak, telefoniako operadoreen deiak... kontzentrazioa eragozten duten faktoreak bihurtu dira. Eta hain ditugu barneratuta, normalak bihurtu dira gure bizitzan. Akaso ez gara egoten mugikorrari begira telebistako eduki bat ikusten ari garenean. Noiz ikusi duzue filma bat oso-osorik mugikorrera begira egon gabe? Noiz 10-15 minutuan irakurtzen egon mezuren bat jaso duzun jakin nahi izan gabe?

Badu honek soluzio erraz bat: mugikorra, ordenagailuak, tabletak, alde batera uztea, itzaltzea ordu batzuek bada ere. Agian zerbait galdu dugun sententzia hori izango dugu, baina ziur munduak aurrera jarraitzen duela... hondamendira bada ere. ■■■

**LIBURUAK ETA
LEIHOAK, ONDO
ERAMATEN DEN
BIKOTEA; NIRE
BURUAN, BEHINTZAT**



ZUNTZ
OPTIKOA
ZUMAIA

Badator zuntz optikoaren herri sarea. Auzo guztietara zabaldutako sare berri honi esker, ohiko operadore handiez gain, tokiko operadore txikiek eskaini ahal izango dute zerbitzua. Abiadura handiko konexioa izango dugu zumaia guztiok, eta hileroko kostua gutxitzeko aukera izango dugu.



labur.eus/ZOZ



zoz@guifi.net



656 511 916

guifi-net

Zumaia
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

INAUTERIAK 2021

Otsailaren
3tik 17ra



Erosketak herrian egiteak, saria du!!

100€ko 6 erosketa bono

Gertu bizi, gertu erosi



Zumalako Udala



GERTU
ZUMAIA BIZITZEKO DA



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA · ☎ 943-14 34 43 · www.biyona.net